

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Mikel Otero Gabirondo EH Bildu Taldeko legebiltzarkideak eta bozeramaileordeak, indarrean dagoen Erregelamendua baliatuta, honako **MOZIOA** aurkezten du, **“Bilboko portutik ontziek armamentu militarra garraiatu ez dezaten hartu asmo dituen neurriei buruz”**, 2017ko urriaren 20ko osoko bilkuran Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuari eginiko interpelazioaren ondorio dena (11\10\04\01\0083).

ZIOA

Urriaren 20an egindako osoko bilkuran, legebiltzarkide honek “Bilboko portutik ontziek armamentu militarra garraiatu ez dezaten hartu asmo dituen neurriei buruz” interpelatu zion Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuari. Horrek emandako erantzuna ez-nahikoa izan zela iritzita, osoko bilkuran honako mozio hau onartzea proposatzen du.

MOZIOA

1. Legebiltzarrak Espainiako gobernuari eskatzen dio Saudi Arabiara eta Yemenen honek buru duen koalizioaren beste herrialde guztietara armen salmenta bertan behera utzi eta armak esportatzeko baimenak ukatu ditzala, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak egiteko edo ahalbidetzeko informazio fidagarriak edo arrisku bizia dauden bitartean.
2. Legebiltzarrak bere kezka adierazten du Euskal Herrian eginiko edo Euskal Herritik ateratako armen erabileraren inguruan, bereziki, arma horien erabilpen

zehatza ezagutzea biziki zaila denean eta hortaz, gerra krimenak egiteko aukera bazterrezina denean.

3. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio bai portuen eskumenak bai armagintzaren esportazioaren inguruko eskumenak bereganatzea lehentasunen artean koka ditzala.
4. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio, iluna den esparruan gardentasun politikak areagotze aldera, euskal armagintzaren behatoki bat eratu dezala, esparruan diharduten talde eta elkarte sozialekin elkarlanean, horren errealitate zehatza, enpresa arduradunak eta zenbaki gaurkotuak ezagutzeko.
5. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio “Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren” abenduaren 28ko 14/2007 Legearen 3.3 artikulua zorrotz bete dezala. Artikuluak hauxe dio: *enpresak lagundu eta sustatzeko politikan, Eusko Jaurlaritza ez da inolaz ere elkarlanean arituko armen ekoizpen, merkaturaketa eta finantzaketan ari diren pertsona fisiko edo juridikoekin.*
6. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio laguntza lerro berria bideratu dezala, euskal enpresen armen ekoizpena erabilpen zibilera eraldatzeko aukera errazteko.

Gasteizen, 2017ko urriaren 24an

Mikel Otero Gabirondo
EH Bilduko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea



A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Mikel Otero Gabirondo, parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente MOCIÓN consecuencia de la interpelación realizada en el pleno celebrado el 20 de octubre de 2017 a la consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, relativa a las medidas que se propone adoptar para que las embarcaciones no transporten armamento militar desde el puerto de Bilbao (11\10\04\01\0083).

JUSTIFICACIÓN

En el pleno celebrado el 20 de octubre este parlamentario realizó a la consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras una interpelación “relativa a las medidas que se propone adoptar para que las embarcaciones no transporten armamento militar desde el puerto de Bilbao”. Opinando que la respuesta aportada no es suficiente, propone que se apruebe en el pleno la siguiente moción.

MOCIÓN

1. El Parlamento Vasco solicita al Gobierno de España que suspenda la venta de armas a Arabia Saudí y a todos los países socios de su coalición en Yemen y deniegue los permisos para exportar armas, mientras haya informaciones fidedignas o serio peligro de cometer graves vulneraciones del derecho





- internacional de derechos humanos o del derecho humanitario internacional.
2. El Parlamento Vasco muestra su preocupación sobre la utilización de armas producidas en Euskal Herria o sacadas de Euskal Herria, especialmente, cuando es sumamente difícil conocer la utilización concreta de esas armas y, por lo tanto, no se puede descartar la oportunidad de que se cometan crímenes de guerra.
 3. El Parlamento Vasco solicita al Gobierno Vasco que sitúe entre sus prioridades conseguir tanto la competencia de puertos como la referente a la exportación de armas.
 4. El Parlamento Vasco solicita al Gobierno Vasco que, al objeto de incrementar políticas transparentes en un ámbito que es oscuro, cree un observatorio vasco de fabricación de armas, en colaboración con los grupos y sociedades que actúan en ese ámbito, para conocer su realidad concreta, los responsables de las empresas y sus cifras actualizadas.
 5. El Parlamento Vasco solicita al Gobierno Vasco que cumpla estrictamente el artículo 3.3 de la Ley 14/2017, de 28 de diciembre, de Carta de Justicia y Solidaridad con los Países Empobrecidos. El artículo dice lo siguiente: “En sus políticas de promoción y apoyo a las empresas, el Gobierno Vasco no colaborará de ninguna forma con aquellas personas físicas o jurídicas dedicadas a la producción, comercialización y financiación de armas”.
 6. El Parlamento Vasco solicita al Gobierno Vasco que destine una nueva línea de ayuda para facilitar la opción de reconvertir para uso civil la producción de armas de las empresas vascas.

Vitoria, a 25 de octubre de 2017





Mikel Otero Gabirondo
Parlamentario y portavoz suplente de EH Bildu

